

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

323n. zenbakia

2006 abendua



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

III. CARACAS'KO LAGUNDIARI BURUZKO IRUZKIÑAK

BERE EDESTIRAKO ETA IKASGARRIRAKO ARGIBIDE BATZUK

Euskaldunok, Naparroa'rekin, asmoz ta izkuntzaz (batez ere) aspalditik bat geranez, Laterria eratzen dugu.

Nere aurrean daukadan Paris'eko eraikin-argazki zar batean auxe irakurtzen da: "Frantzi'ko erreñua eta Naparroa'ko erreñua". Eta idazki ta argazki orren tar-tean bi laterri auen armarria. Gauza argiagorik!

Laterri aitormena aintzar artu dabe, Castilla'k gure makalaldi batean, menperatu ginduzan. Euskaldunok, gauzok lengoratuko diralakoan gaude. Ez dugu etsiko. Bat giñanok aske gelditurik, gure errialde bakoitzak (Kastilla'k inposatutako izenez eta zatitan (Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa) errialde bakoitzak norbere erara jau-ri oi gera Batzar Nagusien bitartez. Ontan, Gipuzkoa'k, bakarrik aurrera pausu garrantzitsua eman zigun eta komertziorako doaiak zuzpurturik Venezuela'n bal-tzu berri bat sotu zigun: "Real Compañía de Navega-ción de Caracas".

Ramón de Basterra jaunak Caracas'en zegoalarik "LOS NAVIOS DE LA ILUSTRACION" deritzan libu-ru eder bat argitaratu zuan 1925'garren urtean. Gure barneko eta atzerriko jakintsuen esanez, oraiñarteko lanik onena gai oni buruz. Ez da liburu polemikoa. Ukatu eziñezko datuak dakarzki.

Euskaldunoi, maltzurkeriz eta etoikeriz españarrak kendu zigutena, berriro emango digutelakoan gaude. Ez eskatzen ibillita noski.

Euskal gizarte bizitzan ez dugu kastarik. Danok ber-diñak gera. España'rekin ez dugu loturarik; politika-loturarik jakiña, errege-pertsonarekin baizik, España'k euskal lege zarrak ziñatu bait zituen.

Donosti, baperez eraman-ekarrian ibillitako zamake-tak dirala-ta, lagungarri izan zaigu. Ta baita ikasgarri ere, olakoetan ez bait dugu esperientzirik izan.

Euskalerrria librecambista izana dugu. Kakaoa zan komertzio gai interesgarriena. Kastilla'k gure egoko mugetan Ebro-ibaiaren luzeran jarritako aduanak eun urte geroago Bizkai-Kolko'ra eta pireneta leku aldatu ziran 1841 garren urtean, Euskalerrria lenengo gerra kar-listan garaitua izan zanean.

EDESLARI TA AIDIEN IRITZIAK

Gil Fortui, Venezuela'ko edeslariak au dio: Gipuzkoar Lagundia oso onuratsua izan da gipuzkoarrentzat, España'rentzat eta baita Venezuela'rentzat ere. (Alaz ere, Lagundiaren etsairik aundienak itsasoan eta lego-orean españarrak izan dira).

Andres Bello'k: España'ko Felipe V'garrenaren egi-ñik oroigarriena eta goragarriena, Gipuzkoar Lagundia-ren bitartez Venezuela'ko politika-pizkundera lortzea izan da.

Alvarez de Ramos'ek: Venezuela'k oparotasunaren aidea bereganatu zuen. Tankerako iritziak damaizkigu-te, Aita Larramendi'k (garaikidea), Fulgencio Lopez'ek eta Aristides Rojas'ek e.a.

Gipuzkoa, bere buruaren jaun ta jabe zalarik, Lagun-diak aurrera egiteko itunben bat izenpetu bear izan zuen. Españarren errege aldetik Patiña ministroak ziñatu zuen. Eta Euskaldunen aldetik gipuzkoar alduna zan Agirre jaunak. Lagundiaren Kostituzioa, gaurko edozein erako Cía. anonima lez eratu izan zan. Asieran, Compañía'ren itsas ontziak, Pasai kaitik irtenak ziranak iru izan ziran: San Ignacio, San Joaquin eta Gipuzkoar Galera. Urtetan barrena beste asko izan ziran.

Erregeak iru milla akzio suskribitu zituen. Eta bera izan kontrolatzailla.

Lagundiaren biziera 57 (berrogei ta amazpi urte-koa izan zan. 1728 illaren 75 tik, 1785 martxoaren 10 arte).

Compañía Loiola'ko Iñaki Deuna'ren babespean eratu zan, Koruko Ama Birjiñaren Zaindaritzapean.

An eta emen euskaldunen espiritu maratza goraldtu ziguten, gure ekin-zalatasuna txalotuz. Eta azkenik La Guaira'n euskal egikerako etxe ederra jaso ziguten, gaur aduana biurtua.

La Guaira'tik urruti, itsas-ertzean au ere, Puerto Cabello'n ezker-eskubi palmeraz josia, ondartzak berbertan, ekar-eramaketan erabillitako euskal ontzian arrastoak nabari daitezke.

EGAÑA'TAR GOTZON



BARRI ONA TA EUSKALERRIA

Euskaldunen bizitzan ikutu aundia izan eban Kristo'ren Barri Ona gure artera sartzeak.

Egia da, antxiñako oitura euskaldunak erdi-alboratuak izan ziralako, baiña, orreik aitzu barik sartu dira oitura barriak.

Eguzki barria asten dala bagillaren 22n. egunean? Or dauka-gu Doniene-sua, "zapoak eta sugeak erre eta artoak eta gariak gorde" teko.

Eguzki zarra azkenerantza doala? Or dago Kristo'ren jaiotza, illentia biztuta ospatzeko.

Uda barria datorrela? Or daukaguz iñauteriak.

Zugatzak santuak dirala? Or daukaguz Gernika'ko aritza eta gure ateetako lizarra eta gure basetxearen atzean ereñotza.

Trumoi eta iñiziotuak Jainkoaren gudariak dirala? Or dauka-guz odeiai araoak edo konjuroak.

Kristo'ren Barri ona laster agertu zan Euskalerrian, eta euskaldunak ez eben mezularirik martiri biurtu. Bigarren gizaldia-zen azkenerantza Gotzaiñak eta eleizak daukaguz Auñamendi barrenean, sortalderantz. Elusa'ko Goi-Gotzaiña be bai, beste gotzain batzuk bere ardurapean egozan ezaugarri lez.

Eta baserrietara fedea ekarri ebenak, lekaideak izan ziran, ez beste leku batzutura baiño beranduago, VI gizaldiaren aurretik. Amabost leio daukaguz Bizkaia'n VIII gizaldikoak, bi Mungia'n, eta leio orreik baseleiza edo ermitetakoak dira. VIII gizaldian eleizak eginda egon ba'ziran, sinistekoa da VI gizalditik laster izango ziralako emen, lenago etorri ez ba'ziran, lekaide misio-leriak.

Lekaideak izan ziralako Barri Onaren ekarlekak baiezatzeko, gogoratu "ermita" izenak basamortuko eremitak gogoratzen dauskuzala, gogoratu "abade" izenak lekaide-etxeak nagusia gogoratzen dauskula.

VIII gizaldian ospetsua zan Okoizta'ko Bixente Deunaren lekaide-etxea.

Lekaide-etxe ori Bizkaia'tik urrean dago, Zigoitia'ko udalaren barruan, Araba'rantza doan Gorbei barrenean. Orta etorten zan sarritan Fernan Gonzalez Gaztela'ko kondea, erdi-euskalduna. Or bizi izan zan aldi baten D.Vivere gotzaiña, Kalagurri'n azke-

nenagoa arabeak sartu ziralako, eta Armentia'n lenengoa. Gotzain au jatorriz Asturias'tarra zan. Orduan Asturias'eko erre-geak emen indarra eukun. Okoizta'ko abataren anaia zan eta erri onetako Lekaide-etxeari emon eutsozan Trebiño'n parrokiak, errotak, landak, sagardiak eta abar. Ortik etorri ete zan gure arte-ra Barri Ona?

Dana dala, VI gizalditik XVI era ez egoan gure errietan ermitak baiño beste eleizarik. Amaseigarren gizaldi orretan asi ziran parroki biurtzen ermitarik entzutetsuenak.

Baiña ermitak asko eta auzo txikietako eleizak ziran. Ez eukun abaderik eta lekaide batzuk ba'eukezan be, oneik ez ziran abadeak. Zelan bizi eben fedea euskaldun areeik milla urte orreitan?

Ermitetan serorak egozan eta oneik ziran kultoaren edo jaun-gurtzaren arduradunak. Orreitarako liturji-jantziak be jazten ebezan eta eleizkizunak egiteko liburuak be eukiko ebezan. Gaur bat bera be ez daukagu.

Zein izan zeitekean jaun-gurtza edo kultoa? Illetak. bateoak, arao edo konjuroak, ibillaldiak beste ermita edo santutegi batzura, litaniak, uztaren bedeikatzeak...

Seroren ezaugarri bi: Fika'n seroetxe izena dauka etxe batek. Ori zan seroraren etxea. Eta Derio'n goiko eleizearen ondoan dago "Zeretxe plazea". Orta or seroaren astarna bat Gamiz'ko eleiz-idazkietan agertzen da Dorota deunaren ermitako serorari zerbait ordaintzen jakola eta geroago seroraren ardiak saldu egin ziralako.

Baiña zertan amaitu zan seroren lan ori?

Alde batetik emakumeak ziralako (Eleizearen betiko misojinia!) eta bestetik eleiz-jantzik jantzi eta abade-zeregiñak egiten ebezalako. Aita Santuak galazo egin eban seroren zeregiña. Euskalerriko agintariak euren alde agertu ziran eta Aita Santuaren agindu orreri ez eutsuen emon "foru-baimena" edo "pase foral". Baiña gero Kalagurri'ko gotzaiña sartu zan bete-eragille lez eta azkenean lortu eban emakume txalogarri arein zeregiña alboratzea eta eleiz lan guzti orrek sortu. -barriak ziran parrokiatan egitea.

1500n. urte-inguruan jazo zan ori dana.

OLAZAR'tar Martin'ek

IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)



EUSKARAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Sari-rik irabazten ez dabenak be bai ipuinaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean.
- Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro	4.ª 120,20 euro
2.ª 240,40 euro	5.ª 60,10 euro
3.ª 180,30 euro	
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea abenduaren azkenera arte.

EUSKARAZALEAK

ADITZ INTRANSITIBOAREN ADITZ-JOKOA IZAN LAGUNTZALLEARI ESKER

Izan da aditz-jokoa daukan euskal aditz bakarra. Beste guztiak euren erroak ipintzen dituez bakarrik bere ondoan. Intransitibo edo iragangaitzetan be orrela da ta oneek ikusiko dituguz oingoan. Edozelan be, euskera ez da onela jokatzen daben izkuntza bakarra lurbira zabalean.

Aurreko lanetan esaten genduan legez, *gaitza, zaitza, ditz* jatorretatik datoz gaurko *gara, zara, dira*, eta Biz. *gintzan, zintzan, (dintzan)* > zintzan zarretatik oingo *giñan, ziñan, ziran*. Oneen kideak dira *naiz, aiz, da*, alde batetik eta *nintzan, intzan, zan*, singularrak, bestetik. Adizki oneetan guztiotan ikusten dogun *izan-en -tza-* erro ori, gipuzkeran, itanoko orainaldiko aditz-jokoan, *txa, txe*, billakatzen da ta bizkaieran *ja, txa, xa, ya, dxa*, etab. Bizkaierako aldaketa oneek onartu zituzten Campion eta Altube jaunek baiña Azkue, Lafon, Mitxelena etab. esaten eben *dator* legezko adizki neutro bati, itanora biurtzeko, ikako *-i-* tartekatzen jakola, *d-i-ator-k* > *dxatok* > *xatok* > *jatok*, etab. egiten dabela. Argudio ustela da au ze *najako, natxako, nayako, nadxako* eta *gatxakoz, gajakoz, gayakoz*, etab., ez dira itanokoak eta erro berbera daroetz. Bizkaierako erro aldaketa oneek ikusten dira beti Gip. eta beste euskalkitan *izan-en -tza-* dagoen tokian.

Orrela ba, ona amen orainaldiko intransitiboko itanoak. *Ni nago* neutroa: Gip., *natxiok, natxeok, natxok, nitxiok, netxeok*; Biz. *najagok, nadxagok, nayagok, naixagok*, etab. *Naiza-gok* > *natza-gok* > *natxa-gok* dira adizki orreen jatorrizkoak. Beste euskalki batzutan, Lab., adibidez, *n-i-a-gok* modernoa.

A dago: Gip., *zegok*, eta Biz. *jagok, xagok, yagok*. Argi ikusten da Gip. *izan-en -za-* dana, *ja, xa, ya*, biurtzen dala Biz.

Gu gagoz: Gip. *gatxaudek, gatxeudek, gatxeok*; Biz. *gayagozak* etab. Danen sorrerakoak: *ga-itza-go(de)k*.

Ni nator: Gip., *natxetorrek, netxetorrek, natxiatorrek*, etab.; Biz., *najatork, nayatok, nadxatok*, etab. *na-iza-tor-(e)k-* etik

A dator: Gip., *zotorrek, zatorrek*, etab.; Biz. *jatok, xatok, yatork*, etab., *(dai)za-tor-ek-*etik

Gu gatoz: Gip. *gatxetozek, gatxetozik, gatxetoztik*, etab.; Biz. *gayatorzak*, danak *ga-itza-tor-ek-*etik datozenak.

Ni n(ij)oa: Gip., *natxiak, natxiak, natxoak, natxoek* etab.; Biz. *nayoak*. Añibarro bizkaitarrak *natxoakok* 'yo me le voy' ipiñi eban, gipuzkeraren antzera.

A d(ij)oa: Gip., *zijoak, zijuak*, etab. Amen dagoan *-j-* ori *izan-en (dai)za-* erroaren aldaketa izan bear dau, asierako *zi-* sujetotzat arturik.

Gu goaz: Gip., *gatxiaztik, gatxiatzik, gatxizik, gatxiak*, etab.; Biz., *gayaazak*.

Ni nabil: Gip., *natxabilek, natxebillek, natxiabilek*, etab.; Biz. *nayabilk*

A dabil: Gip., *zebillek, zabillek*, etab.; Biz., *yabilk*; Lab., *ziabilak, ANs., zabillek*

Gu gabiltz: Gip. *gatxebiltzak, gatxebiltzek, gatxabiltzak, gatxabiltzin*, etab. Biz., *gayabiltzak*

Iraganeko itanoak:

Ni nengan: Gip., *nitxeon, nitxeuan, etab.*; Badirudi Bizkaieran aldaketa bitxi xamar bat gertatu zala: *nin-tzan*-etik *nijan...* edo *ne-jan...* antzeko zeozer atara bearrean, *na-jen-goan, na-yen-goan*, etab. urten dabezalako; Lab., *nindago-*

kan etab. Gure ustez, asierako *ninda...* be *nintzan*-etik dator. Hualde Mayo jaunak, bere ebangelioan, *nintzegon* neutroa idatzi eban. Garbi dago, *nintzegon* eta Gip. *nitxeon* itanoa, biok, *nintzen-egon*-etik datozela.

A zegoan: Gip., *zitxeon*; Biz., *jegoan, yegoan*; Lab., *zegoan*

Gu gengozen: Gip., *gitxeuden, gintza-gode-n-*etik; Biz., *gajengoazan, gayengoazan*: Lab., *ginagozkan, gina...* ori *gintzan*-etik datorrelarik

Areek zegoan: Gip., *zitxeuden, zitza-gode-n-*etik; Biz. *jegoazan, yegoazan*; Lab. *zegozkan*.

Ni nentorren: Gip. *nitxetorren*; Biz., *najentorran, nayentorran*; Lab., *nindathorrek, nindathork*. Amen *nintza...* > *ninda...*

A zetorren: Gip. *zitxetorren*; Biz., *jetorran, yetorran*; Lab., *zethorrek, ziathorrek*.

Gu gentozen: Gip., *gitxetoztin, gintxatoztin*; Biz., *gajentorrazan, gayentorkazan*; Lab., *ginathozikan, gindatozean*. *Gintzan* > *gindan* > *ginan*

Areek zetozen: Gip. *zitxetoztin*; Biz., *yetorrazan, yetorkazan*

Ni nijoan: Gip., *nitxian, nijoan, nindoan*; Lab., *nindoa-*kan; Sul., *nindoan*

A zijoan: Gip., *zitxian, zijoan*; Lab., *zioakan*. Eta F. Lapitzen *zitzoakon* (*zitza-oa-kon-*etik)

Gu gijoazen/giñoazen: Gip., *gitxiastin, gitxian, gijoazan, gindoaztan*; Lab., *ginoazikan, gindohazen*; Sul., *gindoaztan*.

Areek zijoazen: Gip., *gitxiastin, zijoztan, zijotzenan* (Legazpia); Lab., *zioazikan*; Sul., *zoatzan*. Aitatu bear da F. Lapitzen *zitzoazkon*, datiboduna, *zitza-oa-z-kon-*etik

Ni nenbillen: Gip., *nitxebillen*; Biz., *najenbillan*, Lab., *nindabilakan*

A zebillen: Gip., *zitxebillen*, Biz., *yebillan*; Lab., *zebilakan*.

Gu genbiltzan: Gip., *gitxebiltzin*; Biz., *gayenbillazan*; Lab. *gindabiltzaan*

Eñaut Etxamendiren abesti batetik jaso: *zu zintza-bil- enian*, ez da itanoa neutroa baizik.

Areek zebillazan: Gip., *zitxebiltzin*; Biz., *jebillazan*; Lab., *zebiltzakan*

Uste dogu naiko argi ikusten dala izan aditz laguntzaillearen parte-artzea iragangaitzeko aditzetan. Urrengoan saiaturko gara gauza bera probatzen aditz iragankorretan (transitibos).

Mitxelena jaunak, Euskaltzaindiako "Euskera" aldizkarian, 1959-IVan baten eta 1968an bestean, ipiñi eban *natxegok* legezko, itano "bitxiak" eta okerrak dirala, Gip. "txoko baten" erabiliak, *giabiltzak* etab. geien erabiltzen dirala eta *natxegok* eta orrelakoak baztatu bear dirala. Goitik bera oker egoan baiña euskera baturako Iparraldeko *n-i-agok* etab., "modernoa" artu dira, 20000 euskaldunek usatuak, Gip. *natxegok* eta Biz. *najagok*, jatorrenak eta %80 euskaldunek erabiliak mezipreziaturik. Koldo Zuazo jauna, dialektologoa, bat dator Mitxelenagaz.

“AIERI” TA “ZUERI” ADITZETAN

Ara gure gaurko eztabaida: “zueri” ta “aieri” nor-izki auk, nola adieraziko genituke aditz-eratan? Gaur egun, modu batera baiño geiago entzuten ditugu: orra, dasaiz-kizutedan (didazkizutedan) era auk:

Zueri (zuei, zueiri) ZUTE ZUE ZUETE
Aieri (aiei, aieiri) OTE E ETE

Nik zueri esan DIZUTET, DIZUET, ala DIZUETET?
Nik aieri eman DIOTET, DIET ala DIETET?

Antza danez, erarik jatorrizkoena aurki aal izateko, notin-bateko izki edo “singularrak” artzeko bearrean egongo giñake:

Ari – O

Zuri – ZU

Beñola, egun on batez, “aieri” ta “zueri” izkiak sortu aal izateko, goiko ereri (singularrari) anitz-izki edo pluralgilleren bat erantsiko zieten (zioteen); ala nola:

O + E = OE edo-ta O + TE = OTE
ZU + E = ZUE edo-ta ZU + TE = ZUTE
ZUTE + TE = ZUTEE / OTE + TE = OTEE

Aiek zueri idaztia eman dizute/ Aiek aieri izparringia bidalgotz (por correo) bialdu diotee.

Beraz, adizkirik berezkoenak bi era auen artean billatu bear genituke; ETE ta ZUETE (Nik aieri axota utzi NIETEN, ekar ZAZUETE)/ Ingurtia (el folleto) uzten dizutet/dizuetet, ikusi DEZAZUTEN/ DEZAZUETEN; Gabeukatzak (ordulariak) ekarri DIZKIZUTET/ DIZKIZUETET, ikusi DITZAZUTEN/ DITZAZUETEN; Aieri loteria egokitu ZAIOTE/ ZAIETE.

Bearbada asiera batean ETE ta ZUETE daramazkiten aditzak ez lirake egokienak, BI anitz-izki baiditugu barrenean; orrela, gaiñezkeria edo egingo genuke (“redundancia”). Baiña idazle batzuek tokian tokiko kutsua (localismo) nabarmendu nai dezateke, ta zillegi bezaiote! Orrek sormena azkortu ta zuzpeltu bai-deike..

Orduan, konpon-bearreko auzia onokoxe au dezu: zein degu anitz-izkirik egokiena, E al TE? Bizkaieraz, zalantzarik gabe, E dezute: dozuE, daustE, daukiE..

Gipuzkeraz, egia aitortzeko, TE era oraindik bizirik degu: daukaTE, dezuTE, dizuTEt; bearbada, gaur egun, itz-egitean beintzat, jatorrizkoa dirudian T ori galtzen ari zaigu: esan dizuEt, ekarri dezuE..

Ain da ala, onezkero T galtze orrek naasketak dakartzu. Naiz agian ondo esandakoak izan, ez giñuke orrela idatzi bear. Zer, aiek zuri ezer esan al dizue?/ Ez, bi aiek ez diguE guri ezer eman.

“Aiek” “zueri”rako ere, “dizuE” erabilpena entzuna det! Nere aittona zanak (erderaz 9 urte inguru ezkerotzik ikasi zuan) aiek ARI (Yoseba’ri) ekarri diE, esaten zuan; ez DIOTE, ez DIOE (nere amonak ala esan oi zuan).

DIE ori ez da gaizki egongo, baiña gaiñ-erabillitako (gastatutako) eraren bat izango degu. AREK aieri esan “die” orrekin naasten erreza da. Gaiñera, “ARI”ren ezau-garria palta degu: “diOe” zein “diOte”; E orrek, erabillia- ren erabilliz, azkenean O gizaixo ura menderatu ta dese- gin zuan.

“DEZAIKAKE” ALA “DIEZADAKE”?

Euskerazko aalera, bizkaieraz izan ezik, “EZAN” zuz- tarraren bitartez egin oi degu. Bizkaitarrek “EGIN” sus- traia erabilli daroe, “neio”, “neikio” ta era artako adiz- kiak sortuz. Orain, EZAN-adizkiak aztergai arturik, orra sortzen zaigun arazoa. Zer adizki ditugu zuzenak, ona- kook? “Esan dezaizuket, dezaidakezu, dezaigukete” ala emengo auk? “esan diezazuket, diezadakezu, diezaguke- te”? Leenbizikook gipuzkera ta euskera osotuan erabil- tzen ditugu. Bigarregook, euskara batuan.

Euskal joskera gogotan artuz, “dezaizuket” bezalako adizkerak dira ene uste apalean egokienak. Zer dala-ta?

Adizki oien erroa EZAN dala esanda gaude.”Él lo puede hacer”, “Arek egin dezake” dezute: D, oraiñaldiko morfema; EZA, EZAN’dik eratorritako atala; KE, aalaren ezaugarria, bizkaitarrek maiz erabiltzen ez dutena: Askok LE(G)IKE ta NE(G)IKE baiño, LEI ta NEI esan eta ida- tzi naiago dute.

DEZAKE nor-nork-era orretatik DEZAIKAKE, DEZAIZUKE zer-nori-nork erara erraz ere erraz iritxi gindezke, ara:

	NOR	AAL	NORK
Ura	deza	KE	Ø (arrek)

“Dezaoke” ostean, “dezaIoke” erabiltzen degu. O, ari alegia, datiboa danez, predatiboa edo nori-aurrekoaz baliatzea naitaezko zaigu.”Esan dIzut, datorKIo, zaIo, dabilKIzu, dagoKIk diñoguz, eta ez “esan dzut, datorro, zao, dabilzu, dagok”. Orregatixe ditugu zillegi “dezaIda- ke”, “dezaIzuke”, ta “dezaIguke”. Batuak “diezaIoke” ta “diezaIeke” darabiltza, gero “diezaØdake”, “diezaØzuke” ta “diezaØguke” erabilliz. Datibo-aurre- koa ez al litzake or guztiz erabilgarria?

Garrantzizko bigarren arazoa: erroa EZAN izanik; oraiñaldiko izkia, D; iraganaldikoak N, Z, GEN, ZEN dirala..Zer dala-ta “I” ori tarteratzen dute? Zertarako “diezaioke”, “genIezazuke” idatzi ta esan, “dEzaioke” ta “genEzaioke”-ren ordez? Naaste au dala-ta, orain jende askok ez du aalera-adizkerak egoki esaten asmatzen, eta ez erabilli naiago ditu. Zergatik aditzok egoki erabilli ez?

ETXABURUA’tar Asier’ek

ANA MARIN MARGOLARI ZIÑEZKOA



Ana Marin margolaria Baztango alaba dugu; 1933'garren urtean Elizondon jaioa. Margoak irakasten Donostian berez asten zaio gogoia; artu du erakusketa nagusia, Uztallatik Agorra arte; 57 olio egindako margoak eta 25 margo soillakin.

Gaiñera ba ditu bizpauru liburu margozko argazkiekin argitaratuak, oyetatik bat euskaraz idatzia, BAZTAN ize-nekoa.

Egokia iduritzen zaigu euskarazko liburu au. Baztan zer dan ongi agertzen digute Ana Marin margoak.

Mendien izkuntza nolakoa dan erraten dute. Mendiak sortzen dute biotzaren atsa. Mendien inguruan daude ezarriak Baztango erreka ortan. Amalau erri oyekez gizarte orren kabiyak eraiki dituzte.

Ametz tokiak, maitasunez egiñak dirudite.

Leyo zabalak anitz erabiltzen ditu. Margolari onak maite dituzte leyoak, ongi irikiak, batzuetan lore ederrez beteak daude; ikus Murillo, Zurbaran, Goya eta abar.

Etxe inguruak nolakoak diran ageri.

Maiz ikusten ditu ariztegi, pago ta oian ederrak margo biziz apainduak, metak bide batian iratzez beteak, lasaitasuna ematen diote biotzari eta atsegiña begieri.

Garrantzi aundia ematen die erriko semiei; maite ditu, danez gain dantzariak, txistulariak eta oitura zarrak zabalzen dituztenak.

Ortxen daude Felix atabalariaren margozkiak eta danez gain Mauricio txistulariarena. Erriaren nortasuna mutil dantzarekin agertzen du. Anaitasuna ta alaitasuna, naiko bizkor ibilliz lortzen ditu.



Artzai eta laborarien esku lanak atsegin zaizkio, egiazko bitxiak bezala; abatza, malatza, zimitza, kartola eta oporra. Lan-tresnak ere eskuz egiñak dira, gasnak bezala, erran nai dutelako.

Toki berexi bat ematen die margoeri; batez ere udaberriko urdiñei, udazkeneko aizeguari ta guztiz garbia neguko elurrari, udaran gorri biziakin.

Bere erakusketan beste bide batian dauzka landuak margoak; aurren jolasak dirudite.

Txorien mokuen antza daukate, oso alaiak gelditzen dire margoak; larrua kizkurtzen uzten dute eta begiak lasaitzen. Marrazkiak beste alaitasun bat ematen dute; begi garbiak berealaxe ikusten dutena.

Ikusiko genuke oso gogotik bere margoetan erabiltzia nizperuak eta sagardiak loretan oso guretako kutsua daukatelako.

Zerbait erran nai dute Verganerako lorategiko urritzak, igeli ederrenetakoak dira; diztira galantak ageri ta euskal kutsua elkarteko emaitza ziñezkoa begientzat.

Ana Marin margolariak euskal kultura aberastutzen du.

LATXAGA

2006 URTEA JOAN DA

Begiratu dagiogun amaitzera joakun urte zar oneri.

Zenbat egun atsegiñsu ta pozgarri etxean naiz inguruan. Eskerrak Jaunari.

Zenbat egun illun eta triste!

Batzutan gaiso-aldiak norberak naiz etxeokoa. Ez da ordu orreitan be urrin egon Aita Ona.

Batzutan ondo jokatu dogu, poztu gaitzean! Beste batzutan ez ain ondo. Urrengoan obeto.

Urte barria dator. Sarritan entzuten dogu: Ez daitela izan joan dana baiño txarragoa! Baiña guk ohea izango dan itxaropena daukagu. Orretarako gure alegiña eta ingurukoen laguntza.

Irakurle! Urte barri zorionsu bat izan, eta gu emen izango gara zuri egunero laguntzen.

(Gure egutegitik artua)

GIZAKIEN SENDIA

Itaun bat egin bear dogu idaz-lan onen asieran: Gure aurretikoak, euren senideak ziran txinpanze ta gorilakaz batera bizi ziran, baiña noz asi ziran gizaki izaten? Zenbat urte dira gure aurretikoak besteengandik banatu zirala?

Iñok ezin emon leikio erantzunik itaun orreri. Gauzea milloiak urteen joanean egiten egoan. Bai esan geinke ominidoak, oraindiño ez gizakiak, 3'5 milloi urte dirala agertzen dirala, Miozeno'ren ostean datozen Ploizeno aldian.

Eta benetako "homo" edo gizakia agertzen danean lenengoa gizaki trebea (homo habilis) dogu, bigarrena gizaki langillea (ergaster), irugarrena gizaki zutundua (erectus) laugarrena aurretikoa (antecessor), emen neandertala sartuko dogu, baiña au betiko galdu zan, eta gero dator gizaki jakituna (sapiens)

Iru senideak (gorilak, txinpanzeak eta gizakiak) gauza batzutan antzekoak dira, esaterako geneak %99 bardiñak daukez, baiña beste gauza batzutan oso ezbar-diñak dira: gorputz-zatietan, jokatibideetan, berba egitean... gizakiak buruko garaunak askoz aundiagoak daukez, gizakiak ez dauka ulerik gorputzean, eurak bai; amaren sabelean eurak denpora gitxiago egiten dabe... 24 ezbarditasun gogoratzen dauz Tobias'ek. Senideak gitxi dira eta toki batzutan dagoz, gizakiak mundu osoan ugaritu dira, eta gizakiak eurak be orain 4.000 urte-inguru ikasi eben idazten, 10 000 urte-inguru dira lurra lantzen ikasi ebela, orain 50 000 urte Amerika osoa utsik egoan, baiña aldakuntza orreik epe oso laburrean egin dira, zazpi milloi urteren parean ipiñiezkeru.

Eta nondik jakin aurkitzen dan "fosil" edo astarren bat gizakiena dala?

Lenengo aurkitu zana neandertala izan zan (1856). Andik laster aurkitu zan astarrena Pithekanthropus erectus izan zan. Baiña ezaugarri oneik artuko doguz kontuan gizakia dala esateko: Zugtzetatik jatsia dala, oin bigaz dabillela (3'5 milloi urte), agiñak txikiagotu egin jakozala, eta buruko garaunak aunditu.

"Orrorin" eritxon gizakia orain sei milloi urte agertu zan, Afrika'ko sortaldean, eta zati bi egin ziran bata australopithecus africanus eta beste homo edo gizakia. Aurrerapen ori 2'5 milloi urte dirala izan zan. Orduan giroa aldatu egin zan Afrika'n eta gizakia basotik sabana'ra joan eta oin bigaz ibiltzen ikasi eta lanabesak egiten asi zan.

Zein-zein dan jakiteko kontuan artu len azertu doguzan anka-arteko azurrak eta besoak eta oñak. Benetako eskuak gizakiak baiño ez daukaz eta oiñetako erkerua alboratuta daukenak simioak dira. Gizakiak eta onen aurrekoak eskuko erkeruak alboratuta daukaz, zugatzetan oratu al izateko. Trebeak (habilis) zugatzetara igoteko esku bereziak daukaz, "erectus" ek gorputz osoa dauka barriztauta.

Zertarako nai izan eben primateak oin bigaz ibilte ori?

- 1) Eskuak aske eukiteko eta orrelan bere burua aldeztu obeto.
- 2) Lanabesak erabilteko, arrizkoak baiño milloi bat urte lenago.
- 3) Janariak eiztaritzatik umeai eroateko.
- 4) Begiak gorago euki eta ingurua ondo begiratzeko (sabana'n).
- 5) Zugazpean barik sabana zabalean obeto ibilteko.
- 6) Gorputza, batez be seksua obeto erakusteko.

Labur esateko, gizakiak edo "hominidoak" esango dautsegu gizakia izaterako bidean doazen primateai.

Zer aldatu zan: Oin bigaz ibiltzen asi, buruko garaunak aundiago biurtu, kulturea ta barri-emotea ugaritu ta erreztu.

Orretan batera doaz txinpanzea, gorilea eta gizaurreko "hominido" a.

Gizaki trebea 2'5 milloi urte dirala agertu zan.

OLAZAR'tar Martin'ek



BAKIOKO UDALARI

Ez dau aspaldian ezerk bakiotarrakan ardura andiagorik sortu, Oiaga izeneko inguruan egiteko Udalak daukan urigintza egitasmoak baino. Ezinegona eta asarrea zabal-zabal dabilz errian, egitasmo orren ganean egindako azkenengo batzarretan agiri-agiriko lotu dan lez. Ondorioz, egitasmo orren aurkako eritxi publikoa sendotu eta plataforma erritarrak sortu dabe Bakion. Pil-pilean dago, bada, giroa gure errian eta, orretarako, beste batzuen artean, errazoi nagosi bi aitatu leitekez.

Bata: Bakion indarrean dagoan urigintza politikea, orokorrean artuta. Erritar asko, entzun eta ikusitakotik, ez dator bape bat Udalaren urigintza jokabideagaz. Eritxi au, ganera, asterik aste, geroago eta zabalagoa da errian. Etxe larregi eginda dagoz errian eta, oraindik, geiago egiten. Zemento larregi, gauza onerako. Alantxe, bada, biar-etziko lurak, zertarako edo atarako izan leitekezanak, urte gitxian eta arin baten ipotekauko dira eregintza masiboaren ondorioz. Ez da etxe geiagoren bearrizirik ikusten, ez eta, bestetik eta txarrena, politika basati orren amaierarik be. Batez be, urtean zear erriko etxebizitzarik geienak utsik egoten dirana jakinda.

Bestea: Oiaga inguru naturala laskitutea. Asko eta askorentzat, erriko inguru natural ori da izan Bakiok danori eskaini leigun gauzarik erakargarrienetarikoa bat. Erriko balore ekologiko eta turistikoetan andienetarikoa bat. Ori inguruori galduteko bearrizirik ez da inodik inora ulertu errian, ez eta onartu be. Biotopoa babesteko lurraldearen muga-mugan dagoana jakina da, eta atakotzat artuta dago buru-biotz askotan Oiaga bera. Bakioko biriki naturala da izatez.

Beste errazoi geiago badago egon, esaterako, erriko ondare arkitektoniko-istorikoa, modernidadearen izenean, beste bagarik, galdu eragitea: Zubiaurregoikoa, Zubieta, Zubimusu, Ibarrebekoa, Portuondo, Etxatxu baserriak, batzuk 500 edo 600 urte artekoak, orreetariko batzuk balio arkitektoniko andiko izandakoak. Betiko galduak.

Ezustean azi da urigintza gaien ganeko sentibilizazioa Bakion. Bearbada, berton zein inguruko eta ez asagoko errietan zer egin dan eta zer egiten dabilzan ikusi eta gero. Udalak ezin lei entzungorrena eta itsuarena egin, aurrez aurre daukan oposizioa ez balego lez. Batez be, eritxi eta etxe askotako lagunak, erritarrak, or alkartu eta, sututa, euren asarre-gedarrak bene-benetakoak diranean. Udala erritarren zerbitzari dalako, leenengo eta bein, eta beeragoko maila baten, agintari, gero.

Onk guzti onk ausnarketa politiko sakona eragin bearko leuke Udaleko alkate-zinegotziakan. Eurakan ezeze, atzean eurok babestuten dabezan alderdi politikotik be. Urigintza politikea birraztertu bear da,


goitik beera, eta bearezkoa izan ezker, zuztarretik aldatu, guztiz bestelango norabidea artu bear badau be. Atzera egiten jakin bear da, aderez eta bildur bagarik.

Proiektu orren aurkako oposizioa ain arin eta andiro azi da, ze orain Udalari ez jako beste biderik lotu, leen erabagitakoaren ganean ebatzia barrian artutea baino. Baina zelango? Ori da kakoa.

Proiektu ori ezeze, urigintza politikea be, bere osotasunean, zalantzan imini dalako, Udalak neurtu bearko dau ondo be ondo artuko dauan ebatzia, eta, batez be, Udalaren atzean dagozan erriko alderdi politikoak.

Egongo ete dira proiektu orren alde egiteko kosto politikoa ordainduteko prest? Egongo ete dira errian daukan ordezkartza politikoa arriskuan iminteko prest? Asiak dira, daborduko, zentzu onetan, leenengo mobimenduak.

Iniaki MARTIARTU
2006ko urrian



GABON ZORIONTSUAK

Gabon-jaiak urreratzen, gure irakurle guztiai eta euskaldun guztiai opa dautsegu zoriona.

Zoriona arrantzale ta itxaskariai, zoriona baserritar eta lantegietako langilleai.

Zoriona gaisoai ta ezinduai, zoriona espetxeratu ta erbestetuai.

Zoriona gabon-gaba etxean eta bakez igaroko dabena, zoriona zergaitik edo agaitik urrun dabilzanai.

Zoriona errigile ta politikariai, zoriona erritar zintzo ta baketsuai.

Zoriona gurasoai, zoriona seme-alaba ta aitita-amamai.

Zoriona Eleizako arduradunai, zoriona Barri ona gaurko arazoan argi lez jarri nai dabena guztiai.

Zoriona erriaren alde burrukalari diranai, zoriona isiltasunean erri-lana jakintza-saillean egiten dabena.

Aintza zeruetan Jaungoikoari eta bakea lurrean gogo oneko gizonai.

Euskerazaleak

URTE BARRI ONA!



ALEMANIA 'KO IDEIA-BIDEKOAK

Kant'en ondoren Alemania'n ideia-bideko jakinzaleak agertu ziran eta onein artean Hegel da Nagusi.

Ideia-bidekoak ez datoz oso-osoa Kant'egaz batera.

Oneintzat norbera da izaki nagusi eta garbia eta norbera-gandik kanpora ez dago beste ezer amets utsak baiño. Norberak egiten dau kanpokoa dana, baiña norbera ori goragoko adimenagaz bat eginda dago, mugagabeko adimenagaz bat eginda.

Pentsabide au 1831n. urtean, Hegel il zanean, amaitu zan.

FICHTE (1762-1814) Euren artean lenengo jakinzale ospetsua auxe da. Ikastetxe Nagusi askotan izan zan irakasle eta azkenean Berlin'ekoan erretore. Kant'egaz lagun izan zan eta Napoleon'ek berak be ba-dauka zer-ikusia bizitza onetan. Azkenean "Barri Onaren azaltzaille eta misiolari" biurtu zan eta tifus gaisoak eroan eban.

Kontuan artu jakitun oneik ez dirala kristautasunetik urrintzen, naizta euren pentsabideak geienetan naiko urrin egon fede onetatik.

Onein oiñarriak: Ezagupena lortzeko bidea berez argiak diran ideiak dira. Gogoratu Deskartes. Ortik datoz ekintzak askatasunaren bidean eta kontzientzia, baiña numen'rik ez ba' dago zer da aurreko mundu au? Dana da "norbera" gandik sortua, eta norbera "intuiziñoz" ezagutzen da, ideia argia da. "Norbera" ren aurka norbera-eza dago, baiña au be "norbera" k egiña da.

Morala danaren erdian dago. Norberak egiten dauanak norbera agertzen dau, norberaren barruan eta or dago kontzientziak eskatzen dauana.

Erlejiñoa: Bide onetan Fichte' ren pentsabideak erlejiño-bako izatera daroa, baiña 1804n. urtean asita, argi agertzen dau Jainkoa dala lotura-bako edo "absoluto" bakarra eta jakituri guztien oiñarria, eta ideia-bidean ulertu-eziña, ez da notin edo persona.

Gizona ta Jainkoa maitasunaz alkartzan dira. Nazaret'eko Jesus da gu Jainkoagaz bat egin gaituana, gizakundearen ezkurtiak agertzen dauan lez.

SCHELLING (1775-1854): Onen aita Luterotarren artzaiña izan zan. Hegel' en adiskide dogu eta abade izateko ikasi eban baiña gero ikasketa oneik itzi eta sendiko ezitzaile-lana artu eban. 22 urte bete ebazenerako filosofo ospetsua zan.

Izadiaren ulerpenean Fichte' ren jarraitzaile da, baiña ez dau argi ikusten "norbera ez dan" ori zer dan eta zelan izan daiteken "norbera" rentzat oztupo. Izaditik doa gogora eta gogotik barriro izadira. Izadia gizonagan bere burua ezagutze-raz eltzen da.

Jainkoa mugagabeko bizia da, argia da alde batetik eta logos bestetik. Gauza bi orrean arteko borroka da edestia eta or agertzen da Jainkoa ontasun lez eta gaitotasun lez. Berak egiña da mundua eta au gizonaren bidez beragana doa. Iliada ta Odisea lez da mundugintza: Jainkoak mundua egin eta mundua Jainkoagana biurtu.

Erlejiño nagusia ta onena kristiñautasuna da eta onek iru ekinaldi daukaz: Kepa'rena edo legebidekoa, Paulo'rena edo

askatasunarena, au da protestanteen bidea, eta Jon' en bidea, au Espirituarena da eta maitasunaz aurreko biak batzen dauz.

HEGEL (1870). Alemania'ko ideia-bideko filosofoen artean nagusia dogu au.

Lenengo ikasketak klasiku-tankerakoak izan ebazan, protestanteen seminarioan. Antxe esan eutsoen: "Zuk ez dozu balio filosofirako". Baiña berak teologia oiñarri dauan filosofia sortu eban. Napoleon' egaz artu-emonak be izan ebazan.

Oiñarriko gaia auxe da beretzat: "Gutziz askea (absoluto) eta izaki mugatuak"

Jesus bere gaztaroan Kant' en bidekoa zala diño, moralaren argitzailea, baiña elduaroan maitasunaren azaltzaille biurtu zala. Kristautasunak egiten dauz bat Jainkoa ta gizona, orixe da gizakundearen misterioa. Eta orregaitik ezagutu geinke Jainkoa.

Zertarako da filosofia? Orain arte ez da lortu mugagabea eta mugatua alkartzea, baiña ori lortu bear dau filosofiak.

Dialektika da Hegel' en pentsabidean oiñarri bat: "Berez dana" k bestea izatea lortzen dau eta ortik dator gero "berez izatea" ta "beretzat izatea". Iru orreik dira "tesis, antitesis eta sintesis", orreik dira Hegel' en dialektikan iru une. Eta gero agertuko orren indarra Marx eta komunistengan. Tesisa aundi eginda agertzen da antitesisean eta onena dan sintesis sortzen dau, barriro bide ori asteko.

Jainkoa ez da gorengoa edo "transcendente", bera be beti doa egiten. "dana Jainko" edo panteismora bidea da ori.

Hegel' entzat lojika ta metafisika gauza bat bera da, ideia ta izatea bat diralako. Orreri esaten jako monismo eta ideia-bideko bakartasuna. Izadia ideia Jainkoagandik urtetea da eta orrek bere kontzientzia sortzen dau gizonagan eta barriro Jainkoagana biurtzen da. Gizonaren bere burua ezagutze orretatik sortzen da jakintza, ortik legeak eta morala. Etika sendian asten da eta gizartera zabaldu eta laterrian lortzen dau jainkoaren naia izatea. Ez aitzu emen asko goratzen dala laterria eta ortik sortuko da alemanen nazikeria.

Beretzat edestia ez da besterik erriaren espiritua baiño eta or dago filosofia, or erlejiñoa eta or zuzenbidea.

Aginterriak sortaldetik sartaldera doazela diño eta Prusia'ko agiterria (Alemania) dala aginterri guztien eldutasuna. Laterria baiño gauza aundiagorik ez dago eta onek nagusi urten dagian, bearrezkoak dira gudak. Napoleon dauko aurrean baiña nagusitasuna Alemania'ra dator.

Barriro emen nazikeriaren oiñarriak.

Erlejiño-arloan, Jainkoa gizonaren gogoaren bidez agertzen dala diño, edertia eta filosofia agertzen diran lez, baiña erlejiñoak garoaz "gutziz askea", absoluto, ezagutze eta egin dan bidea berezko erlejiñoagaz asi eta Ejipto'ko edertiaren bidez eta Grezia igarota dator. Baiña onena kristiñautasuna da, gizakundearen bidez Kristo' gan agertzen dan kontzientzia. Or be dialektikaren iru uneak dagoz, "norberagan" lenengo (Iru-tasuna), besteagan bigarren: mundugintza, pekatua ta salbakuntza eta alkartean, Eleizan, irugarren

Azkenean beretzat teologia ta filosofia bat dira. Itxura baten ondo agertzen da, baiña teologia utsik itzi dau.

EUSKALERRIA (II)

SARRERA:

Euskalerria`ren leenengo idaz-lanean ikusi dogu, zelako baldintzak izan diran, gaur arte Euskal-Nortasunaren Askatasunezko Sentimentu eder onetan babestu gaituenak eta Euskal-Nortasunaren berezizko Askatasunean zelako garaipenak lortu doguzan, bizitzaren eten-bako ekintzan JAINKOA`ri begira, BERA`k ezarritako LEGE`en ulermenera alegindu garelako beti.

Esan dogu-baita, Euskaldunak, JAINKOA`ri ezker aundiak emon bear dautsaguzela, aukera aundiak emon dauzkuzalako Añamendi-Kateetako mendietan gure Baserriak kokatzeko.

Urteak dira, baten: Aita-Santi, Kerexeta`tar Jaime, Akesolo`tar Lino, Zubikarai`tar Augustin, Larrea`tar Mari Karmen, Goti`tar Jose Luis eta beste ain-bat gizon aundi, Donostia`ko Maria-Kristina ostal-etxean egin zan batzar batera joan giñela, Karo-Baroja`tar Julio izlari zala.

Aita-Santi, Zubikarai ta ni beragaz egon giñela: "Euskaldunak gaur bizirik agertzea mirari aundi-bat dala, eta mirari orren egille, Añamendi-Kate oneik, etxea-lez eza-gutzea zala" esan eben.

Ni, ez-jakiña izan arren, Aita-Santi ta Augustin`eri esan neutsen: "Uskerizko berbak dirala orreik, Añamendiko-bideak ez dabelako egiten Euskaldunak daukagun Nortatasunaren sinismena. Daukan indar ta borondateari, baleiteke asko laguntzea, bizitzeko gogorrek diralako, baiña gaiezkoak diran lez, ez zekula eurak egíña, orren ardurazkoak, arrazoiezko gizon/emakumeak diralako.

Nirentzat, gauza orreik esatea, gaur sortzen dan-lez, Mundua xautzailletasunezko bizi baten kokatuta dagoelako sortzen dira. Berak daukan indarra, arrazoziaren zeaztasunetik kanpo izten gagozelako, gal-bide baten sartuta.

Euskalerrriak milla urte asko daukaz bizitz onetan. Eta idaz-lan onetan aipatuko doguz, zer egin eban bere bizitzako azturaren eta zeintzuk izan dira beren betiko eragozpen edo gaiztasunak, Askatasunezko Nortasunean, bakez, iraun dagian. Gero, irugarren idaz-lanean gaurko egoera ikertzeko.

EUSKALERRIA`REN IZATASUNA:

Euskaldunen izatea "Arduraren ondorioa da". Ainbeste milla urtetan ikasi daualako beren ardurapekoa dala, daukan Nortasuna`gandik asi-ta: Etxea zaintzea, Senitar-tea babestea eta Erriaren Askatasuna lortzea. Erriak osotzen dauan Gizarte-Guztia, Nortasunezko Lotsa aundian, Askatasunean eta JAINKOA`ren LEGE`an bizi daiten.

Orregaitik, Euskeraz berba egiten dauanean, Lotsa aundiko Egian berba egiten dau. Xautzailletasun aldeko Menperatzaille ta Faziztak arrigarritasunean itzita, edo-

zein egonaldian, Demokraziaren-Askatasunezko-Lotsean berba egiten daualako.

Or !! Euskal-Izkuntza eta Euskaldunen-Itza, beren berezko sinismena dalako.

EUSKALERRIA`ren ERAGOZPENAK ta GAIZTA-SUNAK:

Euskalerrriaren gizartea beti bizi zan aske jakintzazko aztura bidetik, arik eta Erromatarrak etorri arte.

Guda-indar aundian kokatuta egon ziralako eta besterik egin ezinean, eurakaz alkartu giñan, kalte aundiagorik ez daiten sortu Euskalerrian.

Eurengandik ainbeste ikasi gendun lurrak eta burdiña lantzen. Ekarri eben baiña, Mundu onentzak kaizargo, erlijio ta izkuntz bakarra egon daiten asmakizun- etik, indar asko eukinda-be, eurentzat lar edo zabalegia zalako, ezereztu egin ziran.

A-ta guzti, berezkotasunari kalte aundiak eginda. Jaurkintzan, erlijioan eta izkuntzan egin eben estukuntzaren bidetik, dana naastuta geratu zan, Latin eta Euskeraren bitartez ainbeste sasi-izkuntzak sortuta (Bable, Gaztelera, Napar-Aragoikoa eta abar).

Erromatar asmakizunaren aria artzeko Godo`ak agertu ziran, eta etenbako borroka baten iraun gendun eurakaz Mauritarrak etorri arte.

Mauritarrak, Godo`ak ezereztu egin ebezanean, paregabeko aukera agertu jakon Euskalerria`ri, eta Euskaldunak ez eben galdu.

Europa`ko erri guztien antzera erregeak sortu genduzan eta euren artean senituta ta katolikotasunak bere eskuetan erromatar "Kaizar-Sakratua" euki eben-lez, indar geiago euki ebanari emoteko, or agertu gintzazan erdi-erdian, daukagun EUSKAL-NORTASUNA kentzeko, leku guztietatik gudak agertzen jakuzela.

Euskalerrri osoagaz ezin ebelako lortu, erregeakaz euki gendun itzarmenaren bitartez eta katolikotasuna Europa guztian aintzat egon zalako, Nafarroa, guzur ta amurrukeriz Eleiza`ko bulda edo Berun-Idazkia eskerniatuta (falsificado) lapurtu euskuen.

A-ta guzti, Batzangotasunezko asmakizun orrek ez ebalako indar geiago euki, 1.789`an Frantzia`ko iraultzaren erdua artuta, guda-indarragaz daukagun laterri menperatzaillepean, beste sasi-nortasunakaz gura dabe gu iza-tea.

Ez dira konturatuko..... NORTASUNA....BEREZKO edo JAINKOA`ren gauza dala ?.

Gaur, or!! gagoz, irugarren borroka nagusian dan Mundu onetan sartuta. Gizartearen ESKUBIDEAK, LOTSEAN ez diralako on-artzen. Urrengo idaz-lanean argituko dodana.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNTZA`n 2.006`an IRAILLA`ren 4`an

ASTARLOA: PEDRO JOSE (1751-1821) PAULO PEDRO (1752-1806) (ANAIK)

Ona emen Durango'n jaiotako anai idazle bi, biak Markiña'n aziak. Frantziskotarrak biak.

Pedro Jose'k Bilbao'n artu eban fraille-jantzia eta mezea esan ondoren, ordena-barruan filosofia ta teologia irakatsi ebazan. Il be Bilbao'n il zan.

Paulo Pedro'k Durango'n egin ebazan lenengo ikasketak eta gero Gasteiz'en. Liburu-zalea izan zan gaztetatik eta Abade egin zan ezker Durango'ko Tabira'n bizi izan zan Errosario'ko kofradia'ren kapellau lez.

...

Pedro Jose'k domeketako berbaldiak liburua idatzi eban ale bitan eta ondo bideratzen dau kristiñau on baten bizitzea eta ardura aundiagoa artzen dau irakatsi ona emoteko, ederto berba egiteko baiño.

...

Paulo Pedro'k Tabira'n eskuratu ebazan euskerea eta beste izkuntza batzuk, esaterako latíña, grekoa, ebreoa, arabea eta Ameriketako batzuk eta ortik atera eban euskerea dala izkuntzarik ederrena.

Au be aldelari edo apolojisten taldera sartuta daukagu eta bere liburuak euskerea goratzeko idatziak dira, baiña aldelarien oitura zan lez, erderaz idatziak. Euskeraz gitxi idatzi eban, baiña itzen jatorria billatzeko bera dogu gaur be maisurik onena.

Ona emen Pedro Jose'ren ataltxu bat aztertzeko:

"Sarri ikusten dira gizon eta emakume guztiz santu dirudijenak. Egunian egunian errosariua erreza eta meza entzuten dabe, sarri konfesadu edo komulgadu, beti errezetan eta al daien guztian elexara; pekatuben gerziak bildurtuten dituz, eta nozbait pekatuan jausten ba' dira, eztauke atsegiñik konfesadu artian, eta uste leiteke artez artez doazela zerura".

Eta Sabino Arana'k Paulo Pedro'ri egin eutsan

"Euzkel-olerkija"

Kikilduten da zeure aurrian

Neu-bekokija,

Dakusalako adi zeurian

Euzkel-euzkija.

Artezkarija zu ixaten zintzan

Zu ipar-ixarra...

Il izan zara!... Illundu gintzan

Zu igota gora.

Euzkelzalerik oindifio ordutik

Ari dira asko...

Best-ASTARLOA bat amagandik

Ezta jayoko.

BARTOLOME OLAETXEA (...1763...)

Bartolome Olaetxea Mungia'ko auzoa dan Laukariz'ko parrokoa izan zan eta erriari egiten eutsozan azalpenak eleizarako liburu baten argitaratzea otu jakon eta liburu eder bat, gero sarritan argitaratua, idatzi eban.

Idazle oneri maitetasun berezia dauosat eta oneixek dira zioak: Neu be Laukarizko parroko izan nazelako, berak idatzi eban liburua nire amak eleizara eroten ebalako eta "olatxea" esaten eutson, eta liburu orretantxe zazpi-bat urtekoa nintzala, lenengo euskerea irakurri nebalako, naiz oso gitxi.

Ara zer difioan Mikel Zarate'k: "1775n. urtean lenengoz argitaratu zanetik ona, amalau aldiz gitxienez argitaratu dan liburua, gure erriak gizaldiz gizaldi, oraintsura arte irakurri dauan eleiz-liburu entzutetsua".

Egia difio Mikel'ek: Gure baserrietako andratxuak "olatxea" eroaten eben eleizara, errosarioagaz eta matilleagaz batera. Nire amak gitxi ekian irakurten, baiña olatxea eroaten eban.

Liburu onen idazpurua "Cristiñauben dotriña" da eta 1763n. urtean argitaratu zan lenengoz

Izena "dotriña" daroa baiña beste gauza asko daukaz barruan: Eguneroko otoiak, meza denporan irakurteko gogarteak irudiz apainduta, garizumea zertarako dan, Kristo'ren nekaldia, gurutz-bidea, errosarioaren ezkutukiak irakurgaiak, oneik bertsoan, ondo ilten laguntzeko era luzea, mezea erasoteko area ta abar.

Begitu zer difion Lafitte iparraldeko azterlariak bere Lorete-gian: "Haren eskuara ez da segur hanbatekoa".

Euskera ona dauka Olaetxea'k, gozoa ta ederra, garbia be bai,

orduko erderakadak eta joskera txarra alboratuta. Azkenengo au ez beti.

Ona emen zelan goستن dauan mezearen balioa:

"Meza emoten dan artean dagoz zeruak zabalik: Dabiltz joan ta etori geure eskariakaz Aingeruak. Baia zer difiot? Jangoikoa bera jatorku mezara: zerutar guztien laguntzan jasten da Jesukristo, barrero aragitu eta iltera legez, difio San Agustinek. Orregaiti bada, ondo antzunak izan doaz gure eskabideak: parkatu joakuz pekatu ariñak: eransten jakuz Jesukristo'ren irabazi andi neurribakoak, eta emon joakez ondo dantzenai gorputzerako ta arimarako ondasun ugari ezin obeak. -Ai bada! Balekije fedeunak, zer dan mezea, eta zenbat irabazten dan meza bakartxu bat entzuteagaz! Eguna bagarik egongo litekez Eleixateetan mez-emollearen begira: aztu egingo lekiioe barautsen: eta gox guztia emongo leuke elexan, urten bere bagarik"

Olerkaria be ba-zan Olaetxea. Liburu onetan ainbat olerki datoz, esaterako auxe liburuaren asieran:

Gixian esnatuta

aurenengo lana

biotza jasotia

zeure Jaunagana.

Eta gurutz-bidea 6/5 'eko amalau aapaldi dira. Erosarioaren 15 ezkutukiak be zortziko nagusietan egiñak dira, ederto landuta.

Bereak ba' dira bertso guzti oneik, ba-ekian Olaetxea'k bertsoan be.

OLAZAR'tar Martin'ek

OPARIZKO EGUNAK

Badago gure artean noz edo nozko baten, alango egun batzuk ospatzeko jokabidea eta orain dala ille-bat inguru Olazar`tar Martin`eri esan neutson, alako egunen baten osterata egin bear gendula, dana ez dala izango lanagaz menpetuta egotea-ta.

Martin`ek, Martitzenean, Irailla`ren 5`ean alkarragaz egongo giñela eta Zapatuan egin bear geunkela bidai ori, esan eban, eta niri ondo baiño obeto iruditu jatan.

Zorrontzatic, goizeko amarretan urten gendun eta gurdian sartuta egon giñela, Martin`ek: "Ayala ta Mena ibar edo mendarteak" ikusi gura leukezala esan eban eta Galdakon Basauri`ko bidea artuta, Padura (Arrigorriaga), Llodio, Amurrio`tik Arespalditza`ko bidea artuta, Aiara dagozan erritxo guztiak ikustera joan giñan.

Aiara`ko arana edo ibar-mendarte au, Araba`ko lurralde aberats ta indartsua da. XV`n Gizaldeen Bizkaia`ri lotuta egon zan lurraldea zan, nai-ta beren buruaren jabe izan da.

Iparaldean Bizkaia; Ego-aldean Burgos`ko Losa Ibarra; Ekialdean Laudio, Orozko, Amurrio, Orduña; Eta Mendebaldean Burgos`gaitik inguratuta dago.

Eta erritxo onekaz osotxen dau bere lurraldea: Aginaga, Añes, Beotegi, Opellora, Etxegoien, Erbi, izoria, Lexartzu, Luxo, Luxaondo, Lantenu, Madaria, Maroño, Menagarai, Menoio Murga, Ozeka, Olabezaar, Kexaa, Arespalditza (errien-buru zala, bere ondoan, Zaraobe edo Sarauben batzartzen ziralako Alkate barriak autatzeko). Okendo, erri eder ta aundia-be an dago.

Agorraldi aundia egon arren, erri politik dira eta Base-rietan, bideetan ta auzunetan egiten dabizen obekuntzak, beren-zenezko edo aurrerako itxura on-bat emoten dabiltz Aiara`ko mendarteari. Toki izenak Euskeraz daukez, baiña eurak erderaz egiten dabe.

Eta emendik Artziniega`ra, Araba`ren Ipar-Mendebaleko Udalerrira joan giñan.

Artziniega`n egonda Intziña`ko Amabirjiñaren Santutegira joan giñan eta gurdia bastar baten itzita Eleiza ikusi gendun.

Lenengo, Santutegi ondoan dagon arte-aundiaren azpira joan giñan, arri-bakarren gaiñean, burdiñezko liburuan zer ipinten eban ikustera. Euskeraz eta erderaz esaten eban: "1.623`an inguruko auzuneak, arta-azpian egin ebela Batzara".

Gero, Eleiz-barrura joan giñan eta an ibili ziran batzuk oiñ-oialak zabaltzen, koruan abeslariak saio-aldian eta beste batzuk lorak ipinten, ezkontza egon zalako.

Intziña`ko Santutegi au XIV-XV gizaldietan eraikia da eta barruko erretaulak edo aldare-buruak ikusten egon giñela, geiago ikasi nebazan Barroko, Plateresko eta Txurriegrezko denborako lanaren gora-beran.

Itandu bat egin neutson Martin`eri Eleiz-barruan egon giñela: "Zergaitik Santutegia`ren erderazko INTZIÑ (Encina) izena Euskeratua?". Ez zan izango obe...bere zeatz eta bereztasunezko izen ARTEA?. Eneban artu eran-

tzunik, baiña baleiteke Euskerea XIVn gizaldian gitxi gora-beran galdu ebelako izatea.

Martin`ek, Santiago`ren irudia beren espata aundiagaz ikusten egon giñela: "Irudi ori debekatuta dago, baiña or daukie arro-arro" esan eban.

Eta emendik, Mena`ko mendartera joan giñan elburu edo asmo bardiñekin.

Mena`ren ibarra, Aiara`ko aran`en antzekoa da: Lurrez "Oso eder eta indartsuak" biak, nai-ta Mena`n Aiara`n baiño agorraldi geiago egon.

Mena, Burgos`ko errialdean, Gaztela`ren Ipar-Ekialdeko arana da. Eta Iparaldetik: Karrantza (Bizkaia); Ekialdean: Balmaseda, Artziniega, Zalla ta Gordexola; Eta Egoaldetik: Burgos`eko Losa ta Montija`ko merindadea-gaitik inguratuta dago.

Aran biak Euskal lurrak izan arren, ba-dira gauzak bai, ezberdinu egiten dabezenak. Bideak: ez dagoz Aiara`n beste zainduta. Eta bideetan dagozan bideratzeko iragar-kiak, batzuk Iparra galtzeko naiko trebeak. Ardura bardiña ez dago an eta Euskalerrian, norabideak ikurrakaz argitzeko.

Barre batzuk-be egin genduzan, nai barre ez egiteko izan, erriak daukazan izenakaz, Billa Sana de Mena, Medina de Pomar, Billarkayo, Espinosa de los Monteros`en ingurutik ibilli giñanean.

Nire adierazpena Martin`eri: "Baten batzuk, azelango alegiñak egin ebezan Euskerazko izenak aldatzeko eta izen baragarri orreik ipintzeko" zan. Eta beren erantzuna: "Ez Kantinflas-bat egon bazan, bere argaz-mintz filmean (pelikula de El Padrecito) esan eta egin eban lez: "Berak umea ez doala bataiatzen, aurreratu eutsien "NEPOMUZENO" izen barregarri orregaz, bere bizi guztian zori-gabekoa izan dadin".

Aiara`ko ibarrean bardin, Gaztelera daukiezan izen batzuk ez diralako ezkontzen Euskerazko AUZOAREN izen-itzakaz. Gure errian, alegiñ geiago egin bear geunke erri bakoitzari beren senezko izenak berrezkurutzen.

Arratsaldeko irurak zirala, Billa-sana de Mena`ra bazkaltzera joan giñan eta "Alberge jatetzan" ondo bazkaldu gendun.

Etzerako bidean, Tornos`eko mendatea igonda, Lanestosa`tik Karrantzara eta emen, Suceso`ko Amabirjiña`ra igon gendun.

Ez dakit tokiaren izena, baiña erromeri aundi bat egon zan, gazteak Ikurriñ askoren artean eta neskak soiñean sardin-saltzaille ta oiñetan abarka kaz jantzita.

Burnidun saltzarriko (cemento armado) Amabirjiña aundi bat daukie, Txabarri`tar ama batek beren seme bateri eskeinduta. Zezen-toki aundi bat-be, guztiz saltzarrikoa dana eta Bas-eliza ta abade-etxe ederrak.

Egun ederra ospatu gendun.

ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZAN 2.006`an Irailla`ren 8`an

FELITXU ERASO, ZIÑEZKO EZITZAILLEA

Felitzu Eraso, Primitiva Mugika ta Agustín Erasoren alaba zan; Donezteben jaioa. Aita tratantea zeukan. Iparraldera, Ezpeletera bizitzera joatea beartuak izan ziran; beren bi alabekin. 1914 garren urtean jaio zan. Felitzu. Ezpeleten seroren ikastetxean, asi zan eziketa on bat lortzen. Bi aizpak ikasle onak ziralako goi mallaraño iritsi ziran eta frantzea ikasten guztiz yayoak. Langilleak izaki eta buru ona zutenak. 1934 garren urtean Donostira aldatu ziran bizitzera. Beren etxean ematen zituzten frantsez izkuntzaren erroak. Berealaxen deitu zituzten Donostiko ikastetxera. Asieratik agertu ziran irakasle onak bezela. Beren ikasleen artean, bazituzten irakasle jakintsuak malla orreetan aipatu bear Fernando Sabater. Unibersidadeko irakasle ospetsu onak, asko idatzi zuan Felitzu Erasori buruz ezitzaile on bat bezela. Bere idazkietan, benetan maite zitun; maitasuna ereiten zekiela bere ekintza berexiena bezela, aitortzen du.

Mendi aldera eramaten zituen maiz bere ikasleak ta an goyen erakasten zizkien iturriak, basoak eta zelaia, baita ere iratziak ta ariztegiak eta pagadiak. Zugaitz oien tartean eramaten zitun egurastera ta jolastera.

Aurren gurasoekin maiz biltzen zan. "ZERUKO ARGIA" aldizkariaren orriak askotan irakurtzen zitun, baita "TEMOIGNAGE CHRETIEN" frantzesez. Gogotik biltzen zan gazte taldekin gai berezi batzuek aztertuz. Antxen ezagutu zuan bere aizparen senarra izango zana Eusebio ZUBILLAGA. Cardinal Etxegaraiak onartu zuan ezkontza au; Baionako eliznagusian ospatu zuten.

1950 garren urtean bere etxean asi zan goiz-atsaldetan ikaskaiak ematen.


35 kideko klaseak zitun. Asieran iru Orduko klaseak. Gero Elvira Zipitriari utzi zion gela bat, euskerazko klaseak emateko.

Antxen bertan Koruko Amabirginiaren kalean 5 garren zenbakian zeukan Elvira Zipitriak gau eskola eta arat joaten zan Felitzu Eraso euskal aditzaren jokabideak ikastera, NOR-NORI-NORK delako joskera.

Bat batean klaseak ematen ari zala il zan. 1977garren urtean.

Eziketa on bat zuen bere bizitzan ondo errotua; alde batetik FRANCOIS MAURIAK, beste aldetik LEON BLOIS baita GEORGE BERNANOS eta EUSKAL ABERZALEEN MAITASUNA, danez gain. Aipatu bearra; euskaraz Felitzuk idatzitako eskutitzak, izkuntza garbia daukate ta sendiaren kutxu aundikoa. Bi eredu ematen ditut. Ortxen ikusten dugu ezitzaile baten eskua.

EREDU BAT DONOSTIA 1967 "Mikel, Xabier, Elisabete, alkarrekin beti ondo konpondu, alegiñak egin.



Asko maite zituztet danak. Matilde, Eusebio eskerrik asko dan danagatik.

Zuekin izango gara, Aita, Ama ta Ni. Besarkada aundi bat danori. FELITXU".

Mikel, Elisabete, Xabier.

Euskeraz ondo ikasi, txintxoak izan. 1967 uztaillak 2 "Euskeraz al dezuten guztia Abestu. Asko abestu. Beartsuei lagundu maite maiteok. Au da poza eta gauza zoragarria. Atzo ordu ontantxe men zifietzen eta Caracasetik zuekin itz egin genuanian ametsetan iduritzen zait ari giñala gero deitu det osaba Tomaseri eta tia Pilarrei. Felitzu".

Itzak ondo neurtzen zitun eta bide berriak irikitzeke beti zai.

LATXAGA

7.- BENUS ETA ADONIS (ERROMA)



Olinpo'ko jainko guztien artean ederrena zan Benus. Jupiter'en alabea eta maitasunaren jainkosea zan bera.

Bein baten Cupido bere semeari begira egoan. Cupido'k Jessica botaten eutsezan biotzetara batari naiz bes-teari eta alako gezi batek Benus bera be bernan zaurituta itzi eban.

Urrengo egunetan Benus'ek Adonis ederra ikusi eban eta geziaren pozoiak eraginda, maitemindu egin zan itsu-itsu Adonis orren aurrean.

Adonis oso jolas-zalea zan, baita eiztari amorratua be. Orretan ibilten zan egunero txakur ausartakaz basurde ta beste piztitzar askoren billa. Berak ez eutsen bildurrik leoiari be.

Benus'ek maitemifia somatu ebanean, itzi eban Olinpo mendia, aitzu bere apainketak eta eiztari jantziak artu ebazan, Adonis'eri eiztaritzan laguntzeko, baiña berak naiago eban egaztiak eta basauntzak eiztzea leoiak eta olakoak baiño.

Benus'ek ba-eukan bildur apur bat Adonis bere maiteak be ezbearren bat izango ete eban piztitzarren eizan eta sarritan esaten eutson kontuz ibilteko eta leoiak eta olakoak baketan izteko. Baiña Adonis'ek bildur orreri irri egiten eutson, jainkosa baten ez daua-la euki bear olako bildurrik esanda.

Benus'ek, pizka bat asarretuta, artu eban bere zaldi-burdia eta Olinpo'ra iges egin eban.

Laster jazo zan Benus'en bildurrak iragarten ebana: Adonis'ek basurde aundi bat arrapatu eban bere txakurkaz eta atxarte baten jaurti eutson gezia. Zauritu bai, zauritu eban basurdea baiña ez eban erail. Zauritua sumindu egin zan eta itsu-itsuan eraso eutsen txakurrai eta azkenean Adonis berari eta au erdi illik itzita, iges egin eban.

Beingo baten etorri jakon Benus ondora Adonis zaurituari, baiña alperrik, il-zorian, azkenetan egoan-eta.

Orduan Benus'ek jainkoen nektarra isuri eutson zaurietara eta Adonis lora ubel birutu zan. Arrezkero naigabeetan lora orreri begira poztuten da Benus.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

*EDIN ADITZ HIPOTETIKOAREN IRAGANEKO ADIZKIAK

Subjuntiboko intransitiboaren aditz laguntzaille legez erabiltzen da. Berez, *izan* aditzari dagokiola zeregin au esan leike ta ez **edin*-eri. Forma arruntenak oneek dira: *nendin*, *endin*, *zedin*, *ginten/gintezen*, *zinten/zintezen*, *ziten/zitezen*. Aldaketa ugari dagoz eta ona adibide batzuk: *nindadin*; *hindadin*; *gindezan*, *gendizan*, *gindazan*; *zindezen*, *zendizan*, *zindazen*; *zitezan*, *zitezten*, *lizezen*.

Edozelan be, aditz orretik datozen eratorriak ez dabe erakusten iñoiz be *-di-*, **edin*-en erroa. Gramatika guztiak dakarre *nenkion*, *zekion*, *genkizkion*, etab., datibodunak. Or ikusten dan *-ki-* erroa ezin da *izan* **edin*-ena baizik eta, bear bada, *ekin*-ena edo bestela *-ki-* datibo aurreko eranskina.

Edozelan be, sarritan ikusten dira *izan*-en erroagaz: Lab.: *nintzakion/nintakion/nindakion* (*tza > ta > da*), *gintzakion/giñazkion* (*tza > ña*), *nintzakioken*, *intakioken* (*tza > ta*), *bagintzazkio*; Sul.: *gintzakion*, *zintzakion*, etab., potentzian *nintakion*, *intakion*, *zitakion*, *gintakion*, *zintakion*, *zitazkion*, (danak *ta*-gaz, *izan*-en *tza*-tik datorrena); Aez.: *nitzaion*, *gitzazkion*, etab., *banitzaio*, *bagitzazkio*; Sal.: *nizaion*, *gizaizkion*, etab., *banizaio*, *bagizaizkio*; Ron.: *nitzaion*, *gitzazkion*, etab.; BNor.: *zitakian*, *zitaukigun*, *gindazkion*, *gindauzkitzun*, *zintazkian*, *zitazkian*, *zitauzkiun*, etab., *nindaikioko*, *litaikioko*, *gintazkioko*, etab., *banindakio*, *bagindakio*, *bagintzauzkitzu*, *bazintzazkiat*, *bazindakio*, *bazintzaukiu*, etab.

Bestalde, badirudi singularreko ta pluraleko formak aditz birenak dirala, orainaldian gertatzen dan legez. Irugarren pertsona plurala, *z-it-en*, geroago *zite-ze-n* biurtua, *izan*-en **z-it-zan*-etik datorrela esan leike, subjuntiboko *ginten*, *zinten*, geroago *ginte-ze-n*, *zinte-ze-n*, indikatiboko *gintzan* eta *zintzan*-etik datozen legez. *Ginda-ze-n/ginde-ze-n* eta *zinda-ze-n/zinde-ze-n* aldaketak *gindan/ginden* eta *zindan/zinden* indikatibokoak gogoratzen dabe. Hipotetikoak dan **Edin*-en pluraleko adizki guztiak, au da, *gaite-ze-n*, *ginte-ze-n*, *zaitte-ze-n*, *zinte-ze-n*, *dite-ze-n*, *zite-ze-n*, ez dauke **edin*-en *-di-* erroaren usainik be, or dabizen *-it-* eta *-te-* erroak *izan*-enak diralako.

Gañera, Sul., Aez., Sal., Ron., BNor. euskalkietako forma pluralak, *gaiten*, *zaiten*, *diten* dira orainaldian eta *gaite-ze-n*, *zaitte-ze-n*, *dite-ze-n*, Gip., Biz., eta Lab. euskalkietan. Orregatik inperatiboan, batzutan esaten dogu *zaitte* ta bestetan *zaitte-z*. Iraganaldian, bardintsu, *ginten* eta *ginte-ze-n*, *zinten* eta *zinte-ze-n*, *ziten* eta *zite-ze-n*. Amen, garbi nabaritzen da, aspaldiko sasoi baten, iru euskalki oneek, gaur baiño asko be batuago zegoanean, bear ez zan plural barri bat asmatu ebela, *-z(e)-* sartuz eta len aitaturako beste euskalkiak ez eutseen jarraitu eta adizki jatorragoekaz eldu dira gaur arte.

Garai baten, asmakizun ustel bat atara eben esanez bizkaiera, jatorriz, ez zala beste euskalki guztiak erabilten eben euskal izkuntza berbera, baizik eta beste izkuntza batetik etorrena ta sasoi areetan, euskaldunakaz topo egin ebenean, euren izkuntza aldatzen joan ziran ia ia euskaldundu arte

baiña oso osorik lortu bage. Orregatik dala beste euskalkietatik ain ezbaridina. Beti dago bizkaierantzako grina txarra. Egia esateko, Mitxelena jauna ideia onen aurka egoan.

Ara oin, zelan ikusten dogun Gip., Biz., eta Lab., sasoi baten ez ebizela alkarrengandik ain urruti, iru euskalkiak akats berbera egin ebilako, au da, ifiondik ifiora bear ez zan tokian, *-z(e)-* beste plural marka barri bat sartu. Badirudi, orduan, euskalki bakarrak zirala denbora areetan. Bear bada, iruren artean asmatuko eben plural barri ori ta ez bizkaitarrak bakarrik, naiz ta gero, bizkaierak besteak baiño geiago garatu eban birplural ori. Amendik aurrerako lantxoetan be, ikusiko doguz beste adibide ugari dagozala probatzeko bizkaiera euskera jator, oso ta zarra-gaz batera ibili dala euren jaiotzatik gaur arte eta bizkaiera premiñazkoa dala gure euskera zelan jao ta garatu zan erakusten laguntzeko.

Singularreko formak ostera, *nendin*, *endin*, *zedin* dira, orainaldiko *nadin*, *adin*, *dadin* biurtuz iraganaldira. Oartu, arren, bizkaieran be, *zedin* eta *zitezen* dirala irugarren pertsonako adizkiak, bere asierako *-z* eta guzti. Nonoz, euskalki onek euki eban iraganaldian asierako *-z* ori beste euskalkiak legez. Gaur be badaukaz adizki batzuetan eta urrengo baten ipiniko doguz.

Edozelan be, guk geureari eusten deusagu: **edin* ez dala benetako aditza ta adizki orrek *izan*-en aldaketak baiño ez dirala, aditz onek jokatzen dabelako beste aditz guztiak erabiltzen.

Ettxeparek, Leizarragak, etab. indikatiboan ipintzen eben *zedin* eta *zitezen*, "aoristo" deritzaion

kasutan. Euskaltzaindiak ("Lehen urratsak II", 392) esaten dau idazle oneentzat *etor zedin* guretzat *etorri zan*-en bardiña zala. Indikatiboan beti erabilli bada, **edin* benetako aditza litzake. Baiña, naiz eta Euskaltzaindiak onartu indikatibo zarrerako, probatu bear litzake ea zein euskalkitan eta errietan erabili dituzan euskaldun zeiak, edo, gutxienez, saiatu astarnen bat aurkitzen.

Subjuntiboko adizkiak ez dira itanoan erabili bear. Orregatik esaten dau Euskaltzaindiak liburu ortan, idazle zarrak indikatiboan ipiñi zituezelako ondo dagola *zedin* eta *zitezen*-en itanoak erabiltzea. Bestalde, ari gara aldarrikatzen itanoko adizkiak gorde dituzala obetoen euskal erriak eta orrela jarraituko dogu ori probatzeko asmoagaz. Edozelan be, indikatiboko adizki "kortes" guztiak dauke euren kidea itanoan. Orduan, ¿ba al dago ifion euskal erri bakar bat *zedin* eta *zitezen*-en itanoko adizkiak gorde edo euren astarna jaso dituzana? Gertatu dana da, grekera izkuntzari kopiatuz, idazle zar batzuk euskeran sartu eben "aoristoa" gure izkuntzaren maila igotzeagaitik. Azkue be orren aurkako agertu zan argi ta garbi. Gauza onek guztiokaitik diñogu **edin* ez dala benetako euskal aditza, *izan*-en aldaketa bat baizik.

Iker Joseba Laka Guenaga

TESTIGANTZAK

1.- Juan Seré (1936-10-16) Gasteiz'en.

Abadea ta Tolosa'n jaioa da.

Egun orretan urreratu zan Belok'era eta agerpen au egin eutson Joxemiel Barandiaran'eri.

-Gasteiz'en bonbaketa bat izan zan eta 35 il ziran.

-Gero egazkin alemanak etorri eta bonbaketa galazo egin eben.

-Basilio Bazterra abadea ta beste abade bat Gasteiz'en komandantea zanagana urreratu ziran eta salakuntza au egin eben: "Montepio Diocesano" liburutegian ez ebezala saltzen gai euskaldunak daukezan liburua baiño. Beste barik kendu ebezan liburutegi aretako arduradunak.

-Gasteiz'en faksisten aurkakoak ziran asko su-izkillatu dabez.

-Sesé bera be sarritan il nai izan dabe matxinzaleak, gorrien guda-zelaiko zauritu bat gaiso-etxera eroan ebalako.

-Matxinatuak arrapatzen dabez zauritu guztiak il egiten dabez.

-Orregaitik ez dago zauritu bat be gaisoetxeetan.

-Irun uria artu ebenean gaisoetxeetan aurkitu ebezan zauritu guztiak il ebezan.

- Dan au Sara'n berak esan eban eta izenpetu be bai.

2.- Iñaki Olabeaga (Lasalletarra) 1936-11-15.

Ezaguna dogu euskal elertian Iñaki Olabeaga lasalletarra, Izurtza'n, Bitaña auzoan, jaioa. Orregaitik izenpetzen dauz bere lanak izer-orde onegaz.

Bere testigantza'n auxe diño:

-Oraintsu urten dauala Gipuzkoa'tik militarrek erbesteratuta.

-Neugaz batera bazkaltzen egon da, diño Josemiel'ek.

-Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n lasalletarrak daukezan ikastetxe-tatik lekaide bizkaitar eta gipuzkoarrak erbesteratzeko agindua emon dabela matxinoak, diño.

-Tolosa'n militarrek 113 su-izkillatu dabezela eta bertan lurperatu dirala. Ernani'n 150 eta Andoian'n en 12.

Belok'en izenpetu eban agiria.

3.- Gelasio Aranburu (1936-11-15) Belok'en eskuz idatzitako agiria.

Abadea da eta Pasaia'n laguntzaille da jakingarri oneik emon daukuzana.

-Iraillaren 13'an sartu ziran militarrek Erretereri'ra, tiro barik.

-Odol-zale agiri ziran. Ara zer esan euskun abade naparra zan Miguel Bidaurre'k: Irun'en 2 000 su-izkillatu doguz, iñor aurka ez egoala. Naikoa zan U.G.T.'ko txartela ez eukitea langillea ilteko.

-Abertzaleak ziranak ez eben bear beste errurik eraillak izateko.

-Ezagun baten albisteak eskatu neutsazan eta auxe erantzun eustan: "San Kristobal'eko espetxera eroan dabe, baiña ez zan ara elduko, abertzalea zan-eta."

-Gauero ilten ebezan gizon-taldeak, eta emakumeak be bai. Batzuk eleizak zaintzen egonak ziran, beste batzuk abadeak euren etxeetan gorde ebezanak, Donostia'ri sua emotea galazo ebenak be ba-egozan.

-Urnieta'ko gazte luistar bat eriotzara epaitu eben eta josulagun autor-en- tzuleak "beronal" pastilla bat emon nai izan eutson. Zertarako dan jakin ebenean ez eban artu nai izan, lo egiteko zalako, eta au esan eban: "Jesuskristo'k ez eban lorik egin ilterakoan".

Sei ordutan itxaron eban belaininko otoitzean iltzaillea etorri-arte.

Josulagun batek esan eutson agerpen au egiten dauanari: 290'ri lagundu dautsegu ilteko orduan eta azkenengo orduan belaininko autortzen danak ez dau guzurrik esaten. Ez dogu aurkitu anarkistarik ez komunistarik, guztiak abertzaleak.

Ezagutzen dot Pasaia'n ezkertarra beti izan dan Zendulo Garzia, zibillez ezkondua eta seme-alabak bateatu barik daukazana. Au militarren aldetik guztiz onartua izan zan falanjera sartu zalako, baiña kristiñau zintzoa izan dan Manuek Garbizu Batzokiko burua, su-izkillatua izan da.

Abade oso onak be il dabez, esaterako Peña Garikano ta Onaindia iñoz eurai itaunketarik egin barik. Baiña Astigarraga'ko parrokoa eta Martin Lekuona be.

Gipuzkoa'n militarrek sartu-aurreko ille bietan laguntza-lan onak egin ebezan abertzaleak, esaterako:

-Erri-giro egokia zaindu.

-Eskumatarrak zaindu iñok il ez dagiezan, batez be abadeak.

Esaterako Pasaia'ko San Juan'en egoan Pedro Guurrutxaga, bera ilteko billa etorri ziranean, salbau eben. Eta orrelan beste asko.

-Campsaren gasolin-tokiari su emon nai izan eutsoen gorriak (400 000 litro gasolina eta 9 milloi litro gasoil egozan, naizta geiena Bilbao'ra eroanda egon) orrelan sua inguruko errietara elduko zan (iru Pasaia, Erretereri, Donosti...) baiña abertzaleak jarri jakezan aurka sendo eta ez eutsen itzi ori egiten. Egunetan zaindu eben toki ori.

-Abertzaleak Donostia zaindu eben 12-13 gabeen: Dana zan lapurretea, sua, eragin larriak... Erritarrak larri, gudarien agurrak entzuten ebezan euskeraz. Ez eben nai Donostia, Irun'en antzera, erretea. Gudariak txalupetan joan ziranean donostiarrak txaloka agur egin eutsen

(Agiri au berak eskuz kidatzia da)

4.- Jose Krutz Beldarrain (1936-11-24) Belok'en Josemiel'ek, entzun-ala, artua.

Oiartzun'go abadea da.

-Militarrak aurrean erabillita, uririk uri ibilli eta Belok'era etorri da.

-Iruña'n N^a S^a La Real'en eleizbidea egiten zala (1936-08-15) 200 napar il ebezan Bardeetan militarren aginduz.

-Naparroa'n abadeak be "txarkeria sustratik atera bear dala" iñoen, edo, bardin dana, gorri ta abertzale guztiak erail bear zirala.

-Abade giputzak (Mujika, Etxaniz...) Burgos'era erbesteratu ebezan eta ango Goi-Gotzaiñari eleiz-baimenak eskatu eutsoezan, baimen orreik ukatu egin eutsezan, eta oraindiño oneraspenik geratzen ba'jake, mezea entzuteko esan eutsen.

-Rekete batek Iruña'ko Gaztelu-Plazan auxe esan eban guztiak ondo entzuteko eraz: "Gasteiz'ko Gotzaiña eralteko iñor bear ba'da, emen nago ni" eta Iruña'ko Gotzaiñari geiago egin bear jako.

Gaztela'ko kanoniku batek Lezo'n udea igaroten egoala auxe esan eban:

"Erretereriko abadeak ondo ordaindu bearko dabe, irabazita dauke-ta. Gero abade orreik (Martin Lekuona ta Gerbasio Arbizu) su-izkillatuak izan ziran. Erretereri'ko beste abadeak be ez eutsen larregi lagundu (Benito Urteaga eta Pedro Indaberea).

OLAZAR'tar Martin'ek

EUSKALERRIA'REN ARAZOA GOIKO MAILLA'KO LISKARBIDEAN

Europa, 1.789'an Frantzia'ko iraultzaren ostean indarrarekin Laterritu zanean, berezko erriak ortik aurrera Euskalerrria' ren antzera, erritarren-arteko nortasuna galdu eben eta menpeko maillara beeratu ziran. Errien artean mugi-aldirako, ixilleko eskubidean bakarrik egin leikezan lekura.

Euskalerrria' ren arazoa orregaitik, Laterrien arteko maillara igotea betiko konpondu daiten, pozgarria izatez gaiñ itxarogarria be ba-da, gaur egun erri-gizartearen eskubideko legeak, konpondu leikezan mailla bakartera igoten dalako.

Zergaitik esaten dot mailla bakarra dala arazoak konpondu daitezkan ?.

Begitu daigun Europa'ko jaurkintzaren edestia begizorrotz labur bategaz, konturatu gaitezkan Europa ta Mundu onen jaurkintz guztia nolako sare-arte edo txeberazko naaspiltasunean arrapatuta urten ezinik zelán dagon.

Europa'ko erritarrak, Godo'en ostean euren babesera-ko antolatzen asi ziranetik, artekariak (arbitros) ipini ebezan buru, erritarren giza-bizitza bideratzeko, beti Erri-Batza nagusiaren menpe, Jaun edo errege izenarekin, erri-zaletasunean edo erri-aginte aundi baten (democrati-camente).

Jaun edo errege onein artekari bidean baiña, iru sare aundi egon ziran zabaldua Europa guztian ezin besteko txebera baten sartzen ziranak eta berezko erritarren larde-ria (respeto humano) edo gizaren-lotsazko eskubideak, menperatzen ebezanak.

Lenengoa, Erromatarren asmakizunean kaizartza bakarra ezarri daiten Mundu guztiarentzat.

Bigarrena, Mundu gustiarentzat Katolikotasun-Alder-dia erlijio-lez.

Eta irugarrena Latiña.

Erromatar kaizar-batzangotasunezko (globalizaciòn) asmakizun indar-bidetik Europa gustian: "Erritarrak, Nortasunezko biziaren babes billa, naaste aundietan gera-tu ziran, jaurkintz menperatzaileak, Latiñ ta berezko izkuntzaren artean sortu ziran sasi-izkuntzaren laguntza-kaz.

325`ean Nizea`ko batzarrean Konstantino`k Eleizaren agintariakaz batera, Mundu guztiarentzat Katolikotasuna-ren alderdia aukeratu eban. Eta 589`an I Rekaredok artu ba-eban batzangotasunezko asmakizun au-be, batu baiño ainbat naste ta erlijio barri sortu ebazan Kristautasunaren kalte.

Latiña, jakintzaren ibilgaillua egin ebenetik gaurko egunararte, berezko erri ta izkuntzarentzat, kaltegarria izan da beti, beragaz menpekotasunaren zauri-atz edo orren asmo txarragaz ekarri dabelako kaltea, berezko izkuntzak ezereztu daitezkan.

Erregeak, antolatzailezko artekaritzan ipini ziranean, asieratik goian esan dodazan txeberazko sare orreitan eza-rrri bear izan eben, katolikotasuna bere "Erromatarren Kaizar Sakratu eta Latiña' gaz" Europa'ko erregeen artean nagusizat artu zalako erlijioaren aitzakiagaz.

Kristautasunari kalte eta banaketa aundiak egin cutso-zan menperatzailetasu- nezko batzangotasun asmo orrek eta askoz geiago Europa' ren erri ta errien-arteko jaurpidea-ri. Erregeen artean Katolikotasunak ortik aurrera "Erroma-tarren Kaizar Sakratu" ori salmentan ipini ebalako.

Lenengoetan, Europa'ko erregeak sari orren atzean, euren artean eskontzen ziralako lur eta erri geiagoren antolaraziak lortzeko. Gero, euren artean indarrezko odol-keri utsean asi ziran kaizar sakratu orren saria lortzeko, berezko erriak ezeren kontuan euki gabe.

Katoliku Alderdia gaiñera, Mundu guztia menpean eukiteko, indarrezko gurutzadetan asi ziran eta odolkeri uts-ori sinis-ezinezko lurraldetan zabaldu.

Indarrezko ekintza orreik, guzurra baiño ez dabe lagun eta denborak aldatzen doiazela erregeen maldabera beca-la etorri zan.

Nai katolikotasuna eta erregeak, artekaritzazko antola-razia baztertzen joan ziralako sasi-jainkoaren mailla artu-ta, ez ziran gai berezko erritarren demokrazira beeratzeko eta Europa beste aukera bateko saioan Laterritu eben. Emen urriñoago joanda, berezko erritarren Nortasunak eta izkuntzak ezereztu naian.

Erromatar asmakizun orrek, ikutu dauan guztia, beren batzangotasunezko elburua lortu barik, dan guztia beti birrinduta agertu eban.

Ezin konturatu.... JAINKOA`ren LEGE`en aurka.... ez garala ezer ?.

Mundua`ren batzangotasuna lortu ezinean, Europa zati aundietan laterritu eben, oraidiño errege batzuk irudi-edergarri lez dirala. Biziaren aurrerakuntzan baiña, orain-dar-denborea agertu da, eta beragaz lantegi-gintza (indus-trializaciòn) eta lantegi-zalekeriak ekarri dauzan diru goseak.

Era-barri onek berezko erri ta erritarrentzat, beste arazo aundi bat ekarri eban, gizartekeria edo sozialismua sort-arazi zanean.

Euren egikeraren tankera esan leike, erritar-langillea-ren babeserako izan bearko zala eta beragaz berezko erri-tarrentzat. Baiña ez zan sortu alakorik.

Sozialistak Europa guztian indarra geiago eukiteko, laterrizko maillan kokatu ziran eta batez, euren jakintzaz-ko aztura aurrera joan ziralako berezko erritarren Nortasunak ta izkuntzak kontuan euki gabe, "Erromatarren kai-zar sakratuzko menperatzailetasun txeberazko sareetan konturatu barik edo itzultzeko al ez ziralako, jausita, eurak be kaizar-menperatzaile biurtuta.

1.- ASIA

Mundua bost zatitan banatzen da: Europa, Asia, Afrika, Amerika eta Oceanía. Gaur aztertuko doguna zati orreitatik bigarrenean dan bizierea izango da.

Bost zatien artean aundiena da Asia eta lur osoaren 1/3 dau berea.

Eta bizilagunai begiratu ezke-ro, erdiak dira asiatarrak.

Askotarikoak. Batzuk zuriak, beste batzuk gorriak, beste batzuk beillegi edo oriak, eta baltzak be ba-dagoz Asia'n.

Txinak bakarrik dauka Europa'k lako iru vístanle. Orregaitik, Asia'tarrak aurreratzean doaz eta Europa'ri gaiñera etorriko jacos, batez azoka-arloan, salgai merkeagoak ekarriko dabezelako. Asita dagoz orretan.,


Goierea begiraten ba'dogu, Asia'ko Eberest mendira da munduaren sabaia, gure Mont Blank baiño bitan goiera aundiagokoa.

Eta egualdiak zelakoak?

Siberia'ko Berkolansk'en, utsaren azpitik 72 maillako otza dago eta Imalaia-barrenean metro lautuko 12 litro euri jausten dira.

Asia'n dago ugarterik aundiena, Borneo, eta onen barruan sartu leikez Frantze, Baljika, Grecia ta Olanda.

Eta ugarte txikiak zenbatu ezker, amar milla dirala ikusiko dogu.



Su-mendiak, geienak, amatauta naiz bizirik, Asia'n dagoz.

Ur-geldirik sakonena be antxe dago, Baikal, baita lur-barruko itxasorik aundiena be, Kaspio itxasoa.

Itxasoa baiño 395 metro beerago dagon "Itxaso Illa" be antxe dago.

Eta kulturarik?

Asia edestiaren joanean, jakintzaz aberatsa da: Txina'ko jakintza oso aundia da, Japoi'koak papela ta polvoreta asmau eban, antxiñako Jáuregui oso bikaiñak eta asko dagoz braman jakintsuen India'n. Eta an sortuak dira kaldeotarrak, asiriarrak eta idazten naiz itxas-ontziak egiten naiz diru-txanponak moldatzen irakatsi

euskuen feniziarrek.

Sei erlejiño zabalduenak Asia'n sortuak dira, andik etorri jakuz Jerusalem'n sortua dan milla milloi gizakiren erlejiño kristiñaua, Meka'tik etorri jakun lareun milloi islandarrena, Benares'en sortua da 250 milloi bramandarrena, Lhasa'n iturria dauan budatarrena, persiatarren jainko bilduna, sintoismoa... Eta zelako heléis-etxe ederrak!

Bititzea alaitzeko, antxe aurkituko doguz ugari lorategi txiki ta loratsuak, maharajá aberatsak, zuge-zaleak... Antxe baita, ekaitzik bildurgarrienak be.

Asia izenak, itxureari begiratu ezker, asikerea esan nai dau eta jazokizunak kontuak artu ezker, antxe asi dira gauzarik eder eta arrigarrienak.

Olazar'tar Martín'ek

→ *Aurreko orrialdetik dator*

Orregaitik gaur, lotsa aundiz eta ago-txikerragaz esanda, Mundu'aren erriartasunezko (ciudadanos del Mundo) eritzian agertzen dira. Ez daukie paparrrik, nai egia zein dan jakinda-be, atzera egiteko.

JAINKOA`ren LEGEA`k baiña, erri-gizarteetan egipide txar edo okerrak egiten diranean, ekingta orreik LEGEA`rekin ados-gabetasunean agertzen diralako, esne-bitzaren antzera agiri-agirira ataraten dauz eta maltzurtasunezko guzur orrekaz aurrera egin ezker, amiltegitik dingilizka kokatzen gaitu.

Mundu'ko bigarren guda-nagusitik urten gendunean eta egin zan sarraskiagaz konturatuta, erabagi eder-bi artu ziran, bata: "Íñoiz ez zala egingo guda-bidez alako beste odolkerizko triskantzarik. Eta bestea: "Berezko erri ta erriarren eskubideak berrezkuratu egin bear zirala".

Gaur egun danok dakigu: "Erromatar kaizartza, katolikotasunezko alderdikeriak eta daukaguzan laterri oneik, euren maltzurtasunezko-guzur eta menperatzailetasunezko egipidean, beti porrotean edo azken-gaiztoan amaitzen dirala, danon ardurak esku gitxietan batu ezker, egin

bearrak ezin dabezelako zentzunez eta zuzenezko bidetik eroan, nai-ta zigorraren keifiadan izanda be.

BERE LEGEA`ren demokrazizko oiñarritik kanpo ibili ezker, arduragabeen agertzen garalako eta beragaz xautzailletasunezko bizi baragarri baten.

EUSKALERRI'ko SEMEAK ORREGAITIK, ZELAKO EGOERAN GAGOZAN SARTUTA KONTURATU BEAR GARA eta ZUURTASUN AUNDIAN JOKATU, BARAGARRIZKO EKINTZAK ALBORATUTA.

GAUR BADA KIGU, EUROPA`ko LATERRIA`k IZAN BEAR DIRALA, EUSKALERRIA`ren ARRAZOIA`ri BAIETZA EMON BEAR DAUTSOENAK, BERE BEREZKO TA ASKATASUNEZKO LEKUAN EZARRI DAITEN. ETA GURE EGIPIDE DEMOKRATIKOAKAZ ERAKUTSI, EUROPA`ko IKAS-BIZITZAN ZAARRENAN IZANEZ GAIN, "EUSKALERRIA BEREN IZARRA DALA".

**ATUTXA`tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.006`an URRILLA`ren 11`n**

ZEIN DAGO ERREPIKATUTA



BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txarteleak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hileror,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

